

Jesus Lopez Villalba:

## “Erditze bat bizi izan genuen, Ermu berri baten jaiotza”

70eko hamarkada. Aldaketa urtiak Estatu eta herri mailan. Eta zurrumbilo horretan, Ermuan izen propio batzuk, tartean abadeak. Zeresan itzela Jesus abadiarena; egunotan 30 urte betetzen dira alde egin zuela.

### -Ermura abade...

1970an iritsi nintzenez, nire asmoa abade ordenatu gabe pare bat urte emateko zen, elizkizunak eta kultura traba irizten niolako nik garrantzitsu ikusten nuena egiteko: herritarrekin egon. Baina kokatu ezinezko figura hori ez zen ulertu eta ordenatzea erabaki nuen. Ermurako abade izatea nahi nuen eta hantxe ordenatu nintzen.

### -Nolako Ermua topatu zenuen?

Bere iragana galdutako Ermu bat, etorkizun identitate gabekoa. Emigrazioak haurtuta bat sortua zuen, ez zegoen borroka eta protesta kontzientziarik eta Eibarri hain zegoen lotuta Ermuak ez zuela nortasunik, gerora errekuiperatu bazuen ere. Lokartutako herri bat topatu nuen, eta guztiaren gainetik, lan egoerak eta etxebizitza premiak guztia baldintzatzeko. Apurka-apurka baina kategoria hartzen joan zen.

-Zein izan zen lanean hasitako esparrurik premia-

### tsuena?

Gogor sartu ginen gazteekin, “Scout” mugimendua sortuz. Talde horretan sartutako begiraleak konturatu ziren herriko gazteekin bazegoela lan hezitzaile bat egiterik. Garrantzi handiko beste kontu bat eskolen egoera hobetzeko borroka izan zen; “Teresa Murga” eraikinaren egituraren arazo batzuk azaldu eta eskola itxi behar izan zenean, horrek ere kontzientzia sendoa sortu zuen. Emakumearen sustapenarekin hasia zen eta andren partze hartzea ezinbestekoa izan zen gauzak eskuratzeko orduan. Ama batzuk gogoz protestatu zuten eta 1972an errepidea itxi egin zen. Imaginatzen duzu urte haietan emakume talde bat Kaltxan gon errepidea mozten! Gainera, ordurarte Eibarren menpe egondako mugimendu sindikala ere erretzen hasi zen: gazteak, emakumeak, langileak... Giza mugimendu guzti horren makinaria martxan ipintzen hasi



Umez inguratuta. Abarzuzako kolonietan; 1975ean. Eskumakoa Jesus da.

zen.

### - “Scouta”, zer zen?


Neska eta mutil koskorrak bildu nahi zituen mugimendu bat. Nik beti insistitu nuen gazteekin egin behar zela lan, hezitu, askatasunez pentsatu eta jokatu zezaten. “Scouta”k jende asko erakarri zuen, balio haundiko lagun aldra polita eta askok, gaur egun orduko baloreak mantentzeaz gain, eskerronez begiratzen

diote izandako formakuntza eta egindako lanari. Eta kolonietan berdin. Urte haietan, Ermutik 50-100 neska-mutil ateratzen genituen eta begiraleek euren oporraldietatik 15 egun lagatzen zituzten kolonietara joan ahal izateko. Jende oso desberdina batzen zen eta ideologiaren gainetik, denon artean adostuta zegoen umeak kontzientzia sozialean, artean, edertasunean

## OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...  
eta hostalarien umore ona

## “Aldaketaren trenak ez zuen gidari bakarria izan, kolore askotako jendea egon zen”

eta naturan gozatzean hezitu beharra zegoela. Urte haietan askatasunean hezitzeaz sarri-sarri hitz egiten genuen. Gurasoak gero; bai kolonia zein “Scout”-eko gurasoak ikaragarri lagundu zuten: egonaldia lekuen bila joanez, finantziatze iturriak bilatuz... Guraso eta begiraleekin ez naiz sekula bakarrik sentitu.

- *Zelan orekatzen zenuen zure eginkizun soziala eta erlijiosoa?*

Ermura iritsi aurretik jandak bizitzatik ibilia nintzen zorionez, langile eta etorkin bezala Suitzian eta han abade-langile frantsesekin bizi izaten egon nintzen. Horrek Ermua hobeto ulertzen lagundu zidan. Mezek indar haundia izan zuten; fedea ospatzeko modu berria zela eta pertsona batzuk alde egin zuten heinean, beste asko hurreratu ziren. Ermuko elizan bildu dira sindikatuak eta alderdi

klandestino asko. Elizak eta Caritasek estaldura eta babes ofiziala emanez hartu zuten parte; preso edo greban zeuden langileentzat dirua eta janariak bilduz, zerbitzu eder on bat eskaini zutela uste dut.

- *Kritikatua izan zinen?*

Kritikatua eta oso defendatua eta lagundua. Kritikatua herri eta Eliza mailan. Eta horrek asko nekatzen du. Herri tradizional batek, martxan jarri zen herri bat izatera batera pasatu zen.

- *Nekea, nondik etorri zen?*

Ni pertsonaia publikoa nintzen, alde bateko eta besteko begirada guztien iturri eta Ermuko bizitza markatzen nuen nolabait. Pertsonaiegi bihurtu nintzen eta ni neuk edo pertsonaiek egiten bazuen zalantza izatera iritsi nintzen, nigandik hori espero zelako. Alde egin behar izan nuen, nire burua topatzeko.

- *Distantsiak idealizatu egiten ditu gauzak?*

Ez, niretzat oso gogorra izan zelako Ermuko azken urtea. Oso bakarrik topatu nintzen Victor abade laguna joan zenean. Jendeak apoiatzen ninduen, baina ikusi nuen besteen zerbitzura eta kanpora begira hainbeste

denbora egin ostean, neure identitatea galduta nuela. Nik beti mantendu ditut bakardadea, isiltasuna eta otoitza identitate elementu bezala eta galduta sentitzen nintzen. Euskal Herriatik irten eta Bartzelonara abiatu nintzen, ez nuen eskema gehiagorik nahi niganako eta nigandik besteenganako. 1977ko iraila zen; 30 urte oraitxe.


- *Lorrotza lagatzen duenetako pertsonatzat duzu zure burua?*

Neuk nahi eta konturatu barik, baina bidea markatzen dut. Bileretan ez nuen nire iritzia ematen; galdetu, zalantza jarri, kuestionatu... Jendearen garapen pertsonalean sinisten dudalako, isilik egotea gustatzen zait, ez baldintzatzeko.

- *Ermua bizpahiru hitzetan?*

Ze ona! Aspaldiko oroitzapenak! Lagunak! Urte biziak izan ziren eta erditze bat bizi izan genuen, Ermu berri baten jaiotza. Jende askoren artean egin genuen; batzuk besteak baino esanguratsuoak izanda, aldaketaren trenak ez zuen gidari bakarria izan. Kolore askotako jendea egon zen tren horri bultzaka.

Estibalitz González



# GURE AMETSA

## Gure dantza Zure dantza

[Gureametsataldea@hotmail.com](mailto:Gureametsataldea@hotmail.com)



ERA GUZTIETAKO MUTUA  
ETA ASEGURUEKIN  
KONTZERTATUA

## ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONZUMENDU MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16  
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: [indartu@euskalnet.net](mailto:indartu@euskalnet.net)